

DEABRUA EUSKARAZ MINTZO ZITZAIEN IRUNDARREI HONDARRIBIAN

Juan San Martín

Argitara berri den *Piarres Lafitte*, bere *bizia* deritzan biografi liburuaran 19. orrialdean, egile den Xipri Arbelbidek gogoratzen digu P. Lafitte apaizgai zelarik ez zekiela euskaraz eta ikasteko asmorik ere ez, irakasle zuen Jean Saint-Pierrek bultzarazi ez balu. Gure hizkuntza ikasteko lehen proposamena egin zionean, honela ihardetsi omen zion: «Nola nahi duzu? Diotenaz, deabrua Euskal Herrira etorri zen batez, «bai» eta «ez» baizik ez zuen ikasi eta oraino, Santizpirituko zubiaren beste aldera gabe biak nahasten zituen».

Euskaldunon artean biraorik eta lizunkeriarik ezaren us-tea horregatik ote da? Deabrukerian sinestean, dena da posible.

Rodney Gallop eta Philippe Veyrin-ek beren liburuetan diotenez, zazpi urtez aritu zen deabrua euskara ikasi nahirik eta, Piarres Lafittek apaizgai zenean esan bezala, Baionatik aldetzean, Santizpirituko zubia (pont Saint-Esprit) igarotzeaz ahaztu zitzaizkion ikasi zituen bi hitzak: «bai» eta «ez». R. M. Azkuek esaera hori jaso zuen Donibane-Garazin, *Euskalerriren Yakintza* deritzan obraren lehen liburuan dakarrenez (ikus, 359-360. orrialdean).

Mitoak sortzen direlarik beren eragina izaten dute gizartean; baina deabruaren mito hori arrazoizkoa baldin bada, gaur egun Gipuzkoako hiririk erdaldunena den Irun historiaren garai batean Hondarribia bera baino euskaldunagoa zela jakiteak deusezten du. Agian, eta hau ez da hain guza zaila

ziurtatzea, XVII. mendearen haseran hondarribiarrak gaskoinenez gehiago mintzatzen ziren eta irundarrak euskaratik kanpora apenez beste ezer ulertzen zuten. Hara hor hondarribiarrak deabrua bera baino azkarragoak.

Hizkuntzak ikasteko gogoa piztu eta giroan sartzea bezalakorik ez dago. Hara zer egin zuen Aragoiko pareja harek, frantsesa ikastera Uztaritzera joan, ezer gertatuko balitzaie ere mugatik hurbil, eta frantsesa menperatu zutela uste zutenean Bordel aldera abiatu. A! baina hura izan zen ustekabea: inorekin ulertu ezin. Zeren frantsesa ikasten zutelakoan euskara ikasi bai zuten. Hara hor benetako deabrukeria! Irundarrei animoa pizteko zerbituko ote du?

Izan ere, Pierre Lancre-rentzat deabruen hizkuntza ulerkaitza zen euskara. Harentzat, 1609an, gaskoina zen normala. Baina, askok ez baldin badakite ere, aspaditik, agian Erdi Arotik edo, gaskoina zen Gipuzkoako ifar-ekaldearen itsas-hegalean kokaturik dauden hirietako hizkuntzetan nagusiki, Donostiatik Hondarribiraino behinik-pehin. Euskaraz baino aisago mintzatzen ziren gaskoinez, Serapio Mujikak iker-lanez agertu zizkigun ageri zaharren arabera. Karmelo Etxegarairen omenezko liburua ikusi baizik ez dago¹. Han bertan adibidetzat ematen digu akelarre bateko gertakariaren berri. Sorginkeriarri buruzko epaiketaren paper zaharretan aurkitu zuen, 1611. urtean, Isabel Garcia hamairu urteko neskato zen lekuko Jaizkibel mendian egin zen akelarre batena, zeinetan hiru adardun deabrua agertu zitzaien². Neskatok bere adierazpenetan esan zuenez, deabrua gaskoinez mintzo zitzaien Donostia eta Pasaiakoei, eta euskaraz Irun eta Hendaiakoei.

Geroztik ordea, garai hartan deabrukerian eroriak ziren Donostia, Pasai eta Hondarribia berreuskalduntzea ez da izan ezinezkoa. Itxaropenez hori opa diegu gaurko irundarrei ere; eta esan beharrik ez dago, bereziki, beren buruak abertzaletzat dituztenei.

1. Serapio Múgica, «Los Gascones en Guipúzcoa», *Homenaje a Carmelo de Echegaray*. Donostia, 1928. Hemen jasotzen dugunaren aipamena 11. orrialdean dator.

2. Arestian aipatu dugun Azkueren *Euskalerriaren Yakintza* (Madrid, 1935) I. liburua 359. orrialdean, Jaizkibelen bezala, hiru adardun deabrua agertzen omen zen Arratiako Diman.